

## [Cast/Eusk] Patxi Ruiz deja la huelga de hambre

MOVIMIENTO PRO AMNISTÍA Y CONTRA LA REPRESIÓN. :: 10/06/2020

Primera valoración

### Castellano

El preso político de la Txantrea Patxi Ruiz ha dejado hoy, en el 31er día, la huelga de hambre que mantenía desde el 11 de mayo. El propio Patxi ha explicado a un amigo que esta mañana ha comenzado a alimentarse, y que **él explicará los motivos por los que ha dejado la huelga de hambre**. En los primeros 12 días, además de la huelga de hambre, también mantuvo una huelga de sed hasta llevar su cuerpo casi hasta el colapso. Fue hospitalizado el 21 de mayo y al día siguiente comenzó a beber. Hoy iba a ser trasladado al módulo 10, pero aún no podemos confirmar este hecho.

Patxi está vivo, y eso es lo primero que el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere celebrar. En cambio, lo primero que quiere criticar es la actitud asesina de la Dirección de la cárcel de Murcia II, desde el primer día hasta el último. Es llamativo lo rápido que se ha puesto en contacto con la agencia Europa Press para decir que Patxi había dejado la huelga de hambre, sin respetar los tiempos del preso, mientras que 10 días después de que Patxi iniciara la huelga de hambre y sed decía que no tenía conocimiento de esta.

En lo relativo a estos últimos 31 días, nuestro movimiento valora muy positivamente la firme respuesta dada por Euskal Herria. Miles de personas han participado en las movilizaciones, encierros, ayunos y huelgas de hambre, coche-caravanas y otras dinámicas de protesta llevadas a cabo cada día en Euskal Herria.

También la solidaridad llegada desde las cárceles ha sido imprescindible para hacer llegar apoyo a Patxi. Algunos presos llevan todo un mes encerrados en la celda, con las consecuencias que ello acarrea. Son protestas duras que han quedado tapadas por la situación de Patxi. Han realizado huelgas de hambre, encierros, ayunos, rechazos de las bandejas de comida y envíos a los directores de las prisiones. En total, 20 presxs del entorno del Movimiento Pro Amnistía, del EPPK y tanto de los GRAPO como del PCer han participado en estas dinámicas a favor de Patxi.

Aunque todavía esperamos el mensaje de Patxi, a esta hora podemos decir sin ninguna duda que la movilización popular ha sido imprescindible para proteger su vida y para dar a sus reivindicaciones el lugar que merecían. Gracias a la presión popular Patxi nunca se ha sentido solo, y el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere dar las gracias a todas las personas que de una u otra manera se han movilizado.

La lucha de Patxi Ruiz ha sacudido Euskal Herria, y sobre todo ha servido para dejar al descubierto la brutalidad de la cárcel. En las cárceles españolas y francesas se aplica la tortura crónica a lxs presxs y, muchas veces, también la tortura directa. De muros adentro la opacidad es la que se impone y los carceleros (también los médicos, como hemos visto en

este caso) actúan con impunidad para maltratar a lxs presxs.

Las galerías de aislamiento, los primeros grados, los Ficheros de Internos de Especial Seguimiento, los módulos de respeto para chantajear a lxs presxs y toda la estructura de la cárcel son herramientas de tortura para romper el ser y la voluntad de las personas, y tienen responsables políticos. Precisamente esos responsables políticos son los que a diario, desde que Patxi inició la huelga de hambre y sed, han estado atacando y poniendo en el punto de mira al Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

Durante este largo mes se ha evidenciado quién es quién, las prioridades de cada agente político y la distancia entre la política institucional y las verdaderas necesidades del pueblo. También ha quedado en evidencia que, en contra de lo que nos dicen desde los partidos políticos burgueses, el pueblo tiene capacidad real para condicionar la política desde la calle, que esta es sincera, limpia y mucho más sana que la que se deja en manos de una élite.

Para terminar, no podemos dejar sin mencionar que quienes daban a Euskal Herria por asimilada se han vuelto a equivocar. La lucha de Patxi ha dejado al descubierto la existencia de un nuevo espacio socio-político compuesto por diferentes organizaciones, cada una con sus especificidades, pero bajo la premisa de respeto mutuo. También ha descubierto la existencia de una red internacionalista y solidaria trabajada humildemente durante los últimos seis años, para sorpresa de muchos.

El camino no ha terminado. Algunas de las movilizaciones convocadas antes del día de hoy se mantienen. En las próximas horas y días iremos concretándolas. La lucha sigue, por la amnistía y por organización que lleve a Euskal Herria y su clase trabajadora a la libertad. ¡Independencia y socialismo! Gora Patxi!

En Euskal Herria, a 10 de junio de 2020.

### **Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.**

#### **Euskera**

Patxi Ruiz Txantreako preso politikoa maiatzaren 11tik aurrera eramatzen ari zen gose greba utzi du gaur, 31. egunean. Patxik berak azaldu dio lagun batiko goizean elikatzen hasi dela, eta **berak azalduko duela gose grebari bukaera eman izanaren arrazoia**. Lehenengo 12 egunetan, gose grebaz gain, egarri greba ere mantendu zuen bere gorputza ia kolapsora eraman arte. Maiatzaren 21ean ospitaleratu egin zuten eta hurrengo egunean edaten hasi zen. 10. modulura eraman behar zuten gaur Patxi, baina hau egin dutenik ezin dugu oraindik konfirmatu.

Patxi bizirik dago, eta hori da Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua ospatu nahi duen lehenengo gauza. Kritikatu nahi duen lehenengoa, ordea, Murtzia II kartzelako Zuzendaritzaren jarrera hiltzailea da, lehenengo egunetik azkenengora arte. Deigarria da ze azkar jarri den kontaktuan Europa Press agentziarekin Patxik gose greba utzi duela esateko, presoaren denborak errespetatu gabe, gose eta egarri greba hasi eta 10 egun beranduago horren berrikirik ez zuela esaten zuen bitartean.

Azken 31 egun hauei dagokienez, gure mugimenduak oso modu positiboan baloratzen du Euskal Herriak emandako erantzun irmoa. Milaka pertsonak hartu dute parte egunero Euskal Herri osoan zehar egindako mobilizazioetan, itxialdietan, barau eta gose grebetan, kotxe-karabanetan eta beste protesta dinamika batzuetan.

Kartzeletatik heldutako elkartasuna ere Patxiri babesia helarazteko ezinbestekoa izan da. Preso batzuek hilabete oso bat daramate ziegana itxita, horrek dakartzan ondorioekin. Protesta gogorrak dira hauek, Patxiren egoerak estalita utzi dituenak. Gose grebak, itxialdiak, barauak, janari erretiluei ukoak eta kartzeletako zuzendariei gutun bidalketak egin dituzte. Guztira Amnistiaaren Aldeko Mugimenduaren inguruko, EPPK-ko eta GRAPO zein PCEr-ko 20 presok parte hartu dute Patxiren aldeko dinamika hauetan.

Oraindik Patxiren mezuaren zain gauden arren, ordu honetan zalantzarik gabe esan dezakegu herri mobilizazioa ezinbestekoa izan dela Patxiren bizitza babesteko eta bere aldarrikapenei merezi zuten tokia eskaintzeko. Herri presioari esker Patxi ez da inoiz bakarrik sentitu, eta Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak eskerrak eman nahi dizkie modu batean edo bestean mobilizatu diren pertsona guztiei.

Patxi Ruizen borrokak Euskal Herria astindu du, eta batez ere kartzelaren gordintasuna agerian uzteko baliogarria izan da. Spainiar eta frantziar kartzeletan tortura kronikoa aplikatzen zaie presoei eta, askotan, tortura zuzena ere bai. Harresien barnealdean opakotasuna da nagusi eta kartzelariak (medikuak ere bai, kasu honetan ikusi dugun moduan) zigorgabetasunez aritzen dira presoei tratu txarrak emateko orduan.

Isolamendu galeriak, lehenengo graduak, FIES fitxategiak, presoei xantaia egiteko errespetu-moduluak eta kartzelaren egitura osoa pertsonen izaera eta borondatea hausteko tortura bitartekoak dira, eta arduradun politikoak dituzte. Hain zuzen ere arduradun politiko hauek dira Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua egunero, Patxik gose eta egarri greba abiatu zuenetik, erasotzen eta jo-puntuau jartzen ibili direnak.

Hilabete luze honetan zehar agerian gelditu dira nor den nor, eragile politiko bakoitzaren lehentasunak eta politika instituzionalaren nahien eta herriaren benetako beharren arteko aldea. Agerian gelditu da ere, alderdi politiko burgesetatik esaten digutenaren kontra, herriak kaletik politika baldintzatzeko benetako gaitasuna duela, eta hau zintzoa, garbia eta elite baten eskuetan uzten dena baino askoz ere osasuntsuagoa dela.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi argi gelditu dela Euskal Herria asimilatutzat hartzen zutenak beste behin ere okertu egin dela. Patxiren borrokak azaleratu du kaleak berreskuratzea helburu duen esparru sozio-politiko berri baten existentzia, antolakunde ezberdinek osatzen dutena, bakoitza bere berezitasunekin baina denek elkarrenganako errespetua aintzat hartuta. Azken sei urteetako ibilbide xumeak nazioarte mailan ere landutako sare internazionalista eta solidario baten existentzia azaleratu du, askoren sorpresarako.

Bidea ez da amaitu. Gaurko eguna baino lehenago deitutako hainbat mobilizazio bere horretan mantentzen dira. Hurrengo ordu eta egunetan joango gara zehazten. Borrokak jarraitzen du, amnistiaaren alde eta Euskal Herria zein bere langileria askatasunera eramango dituen antolakuntzaren alde. Independentzia eta sozialismoa! Gora Patxi!

Euskal Herria, 2020ko ekainaren 10a.

**Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.**

---

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-patxi-ruiz-deja>